

## Institutuan komunikazio eta informazio teknologia berriak

■ Institutuak 150 ordenagailu sarean jarri ditu ■ Berrikuntza teknologikoak 22 milioiko aurrekontua izan du ■ Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Institutuko ikasle bat ordenagailu aurrean ikasten.

HERNANI Institutuak aurre-rapauso handia eman du informazioa eta komunikazio teknologietan. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundia ikas-tetxeak informatizatzeko plan bat ari dira egiten. Patxi Apeztexea zuzendariak dioenez, Institutuak informatizatzeko plan horretan sartzea lortu du, bi erakunde horiekin izandako harremanei esker.

Ekipamendu berria zera da, Agustin Iturriaga eta Karmelo Labakako 150 ordenagailu sarean jartzea (denak elkarrekin konektatuta), internet eta guzti. Gainera, sistema

horrek interneten oso azkar ibiltzeko aukera ematen du. Instalazio hori jartzeko 12 kilometro kable jarri dituzte bi zentroetan.

Informatika zerbitzua sarean jartzeaz gain, informatika ekipamendu berrienak jarri eta aurreko instalazioa osatu du Institutuak.

Instalazioa informatikan homologatutako enpresek egin dute eta 22 milioiko aurrekontua izan du.

**IKASLE ETA LANGILEEN FORMAZIORAKO ONA**  
Informazio eta komunikazio

teknologi berriak jartzeak Hernaniko eta eskualdeko ikasle eta langileen formazioan eragin nabarmena ekarriko duela iragarri du Apeztexea zuzendariak. Prentsa oharrean adierazi duenez, alde batetik, Hernani Institutuko guneen arteko komunikazioa erraztu egingo du; eta, bestetik, kanpora begirako harremanean ere bentaja handiak ekarriko ditu: Institutuak inguruko edozein enpresa edo munduko edozein erakunderekin dituen informazio harremanak asko zabaldu, erraztu eta azkartuko baititu teknologia berriak. □

## Txistorra pintxo bat eta sagardoa

■ SANTO Tomas eguna da gaur, eta Hernanin ere izango da txistorra non jana. Sorgin-

txulon, Karabelen, Orkolagan eta Jubilatuko Egoitzan behintzat txistor jana egingo dute.

Gainera, urtero, tabernetan ere txistorra pintxoak izaten dituzte. □

## ERREMONTEA

### Bost pareja haundi binakako txapelketan

■ Bikoteak dira: Ezkurra-Urko, Altuna I-Izagirre, Altuna II-Etxabe, Iñigo-Lizaso eta Zeberio II-Iriarte

DENA prest dago Galarreta frontoian Bikotekako Erremonte txapelta jokatzeko. Bost bikote fuerte arituko dira eta datorren ostegunean hasiko da, abenduaren 27an, Galarretan bertan. Finala ere Galarretan jokatu da otsailaren 9 edo 16an

#### ETXABE-ALTUNA II

Jokin Etxabe azkoitiarra da, baina, Hernanin bizi da, Galarretan bertan. Binakako Txapelketan aurten ere Altuna IIarekin jokatu du, laugarren aldiz. Amezketarrak eta biak txapel bat irabazi eta beste batean finala jokatu zu-

ten elkarrekin. Adituek Ezkurra-Urko eta Altuna I-Eizagirre jarri dituzte favorito, baina, Etxabe eta Altuna II mendean hartu beharko dituzte.

#### LIGILA, SEMIFILALAK ETA FINALA

Txapelketak hiru fase izango ditu. Aurrena, bost bikoteek elkarren arteko ligila jokatu dute, partidu bakarrera, eta azkenengo eliminatu egingo da. Beste laurak semifinalak jokatu dituzte. Aurrengo partidua eta finala, Galarretan jokatu dira. Semifinalakoak zozketaz erabakiko dira. □

## Olentzero baserriz baserri

■ Doberak urtero antolatzen du Olentzeroa, Eguberri bezperan baserriz baserri eta sagardotegiz sagardotegi ibiltzeko. Talde haundi batek, bertsolariak eta soinu-joleak lagunduta, gabon kantak eta bertsoak izaten dituzte etxez etxe, hasi Zikuñagatik, Osiñagatik segi, eta herri barruko atari askotan. Olentzeroa hasi eta buka Gudarien plazan egiten da. Olentzeroan nahi duen guztia atera liteke eta joan nahi duena azaldu dadila abenduaren 24an 15:00etan, Gudarien plazan. □

## Eskolarteko kirolean, bi partidu

■ Bi pelota partidu besterik ez dira Eskolarteko kirolean, datorren asteburuan. Larunbatean Usurbilen, infantil mailan: 16:00etan, Elizatxo-Langile B; eta 17:00etan, Salesiarrak-Langile A. Urtarrilaren 12a arte ez dago besterik. □

## Bertso barrikotea Elutxetan

■ Mañukorta eta Larrañaga bertsolariekin bertso barrikotea egingo dute Elutxetan, bihar, 20:00etan. Izena emateko deitu ezazue telefono honetara: ☎ 943 556981 □

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA  
Txirrita 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

### ANEXO

Gabonetan eskaintza bereziak:  
- SONY 32 FX 65 telebista panoramikoa (100 HRZ): 210.000 pzt  
- SONY 28 FX 65 telebista panoramikoa (100 HRZ): 190.000 pzt  
Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

ADARRA

### LAN TRESNAK, S. A.

Karmelo Labaka 18  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
Tel. 943 555150-555154-Faxa 556110

Allianz

ASEGURUAK  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Tel.: 943 557 326  
656 735 109

Skoda Fabia Combi Iritsiko den jendearen zat espazio berria.

**MENABI**  
Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

AMAIA

ARRANTZAK  
ITSASBIAK  
FRESKO ETA  
IZOZTUAK

Kardaberaz 34  
Tel. 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 HERNANI

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI  
☎ 943 55 21 27  
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

PUTZUETA

HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39  
Tel: 943 55 27 87  
20120 HERNANI

BERTSO LATA

## Xiberoako kantu afaria larunbatean

■ Dominika Etxart eta Niko Etxart aita-semeak eta Larralde kantatuko dute Arizmendi jatetxean ■ Asteartean Biteri bete egin zen umeentzako saioan.



Jon Maia Hernaniko umeei kantari, astearteko saioan.

BERTSOLATAN Xiberoako kantu afaria izango da Arizmendi jatetxean. Etxart aita-semeak eta Larralde Zuberoako kantuak eta bertsoak kantatuko dizkigute, afari giro ederrean.

Sarrerak Aralar eta Garin tabernetan daude salgai 2.500 ptan.

Bestalde, asteartean umeentzako saioa izan zen Biterin. Aretoa bete egin zen eta bertso-lariak konektatu zuten umeekin. Urtarrilaren 6an Euskal Tebistan botatzekoa dute *Hitzetik Hortzera* programan. □

2002ko UDAL INBERTSIOAK EZTABAIDAN

## Herritarrek egin dituzte proposamenak

■ Datorren asteazkenean eztabaidatuko dira proposamenak denak ■ 19:30etan.

LEHENGO astean udal taldeak egin zituen inbertsio proposamenak, eta asteazkenean izan zen herritarren txanda. Talde bakoitzak bere proposamena bota zuen, 2002ko udal inbertsioetan sartzeko.

Herritarrek egindako proposamenak hauek izan dira: Sorgintxuloko urak jasotzeko

kolektorea eta Latsunbe alde-rako oinezko bidea hobetzea; Oialumetik Hernanirako autobus paradan estalpea eta Oialumeko auzo elkarreentzat lokala; RENFEko estazioan tunel bat; herrian etxebizitza "kolektiboak" egitea gazteentzat, gazteek berek eta udaletxeak elkarlanean eginak; Goiz eguz-

ki txukundu eta estaltzea; kiroldegiko frontoia pintatu eta kiroldegia haunditzeko leku baten bila hastea; AEKko lokalak Udal Euskaltegiko baldintza berekoak izatea; eta Zikuñagako ermita nonbait jartzea. Beste proposamen batzuk ere egin zituzten, baina, inbertsioak (obrak) ez zirenak. □

## 70 elkarte eta erakunde inguruk sinatu dute 'Bai Euskerari' akordioa

■ Firma bilketak oraindik segi egingo du

*BAI Euskerari* Akordioaren aldeko plataforma gizarte erakundeetara aurkeztu eta firma biltzen ari da. Helburua 100 inguru biltzea da eta dagoneko ia 70 bildu ditu. (Beheko listakoak) Firma biltzea bukatzean sinatu duten guztiakin diptiko bat atera eta banatzeko

asmoa du plataformak.

Ondoren etorriko da enpresa edo elkarte bakoitzak euskera aldetik zer premia eta asmo dauzkan aztertu eta hori betetzeko bideak jartzea.

Plataformak bidalitako datuen arabera, hona hemen orain artean sinatu dutenen zerranda.

**HEZKUNTZA:** AEK, Helduen Hezkuntza Iraunkorra, Elizatxo, Hernani Institutua, Langile, Marigorri haurtzaindegia, Urumea, Inmaculada. **MERKATARITZA:** Aker, Aralar, Garin, Rioja eta Oialume tabernak, Amaia arrandegia, Begira optika, Errioguarda jatetxea, Gorri, Iñaxi oihalak, Jaione konjelatuak, KOM diseinu eta komunikazioa, Lautximeneta okindegia, Miner janaridenda, Novedades Marian, Sonia estetika, Urbietako Kopiak. **ELKARTEAK:** Osiñagako Asmo-Argi auzo elkarte, Orkolagako Martxan auzo elkarte, Mendiriz-mendi, AAB-ak, Askagintza, CD Hernani, Dobera, Elkarri, Elurtxori elkarte, Errugbi elkarte, Etxeberriko Lagun Artea elkarte, Etxerat, EHE, Gazte Txokoa, IA, Kanika taldea, Kantuz abesbatza, Kaxko elkarte, Martindegiko auzolagunak, Molotoff Irratia, Santa Barbara elkarte, Segi, Tolarea Kofradia, Ttaria dantza taldea, Xalaparta kultur-kirol-jolas-lagun artea. Hirularuden herri ekimena. **LAN MUNDUA:** Bakelite Iberica S.A., CC.OO, Couth, Joxe Zerain S.A., Katea lantegiak S.L., LAB, Orona, Scoiner S.L., Sokoia Geoteknia, Talleres Mitxelena S.COOP. **ZERBITZUA:** Brintza Mapfre, Catalana Occidente, Correos y telegrafos de Hernani, Elkar autoeskola, Gabinete de servicios empr., Sustrai sexologia, Zarautz gestoria.

### IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Garzonen erabakiari buruz eta *Askatasuna* talde berriari buruz, bertako kide batekin 12:30: Niko Etxart kantariarekin larunbateko kantaldiari buruz 13:00: Merino, kartzelan 17 urte egindako *autonomoarekin*.

### HERIOTZAK

Karmen Azpeitia Zabaleta  
Asteazkenean hil zen 80 urte zituela

Margarita Sarasola Egaña  
Asteazkenean hil zen 63 urte zituela  
Hileta gaur, ostirala, 19:00etan Juan Bataiatzailean.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 557750  
► Jokalari anonimoak 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Irigoien  
Elkano 2  
☎ 943 552087  
► Gaeuz: Arzallus  
Andoain. Plazaola 17  
☎ 943 591514

**MINER**  
JANARI DENDA

Santa Luziko azokan 1. saria lortutako **ERREZIL** sagarra saltzen dugu.

MINER JANARIDENDA  
Nagusia 49 HERNANI

**LAUTXIMENETA**  
okindegia  
kafetegia

Bezero eta hernaniar guztiei, eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu, LAUTXIMENETatik.

Perkaiztegi 4 - HERNANI  
(atletismo pistaren aurrean)  
Tel. 943 334 252

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK

**Erkerro**  
Fruituak

Antziola 5  
20.120 HERNANI

**Bertako produktuak**  
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75

Urtarrilaren 2tik aurrera  
helbide berrian izango  
gaituzu:  
ANTZIOLA 2


Abenduak 22 larunbata  
**Barrikotea**  
20:00etatik aurrera.

Mañukorta eta  
Larrañaga  
bertsolariekin.

Izen emateko deitu:  
Tel. 943 55 69 81

**ELUTXETA**  
Sagardotegia Erretegia

Oztaran Bailara 20.130 URNIETA



## KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere lortu** ahal izango dituzu, Anoetako partiduetarako **sarreraren zozketan** parte hartu, eta **bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan** ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, **2002ko otsailaren 1a** baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertso berezi** biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

**kutxa**

zure diruaren balio erantsia